

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

1. MAILA (B1)

Entzumena eta irakurmena

EREDUA: 13.1-1EI2

Deiturak: _____

Izena: _____ NA: _____

Azterketa honek **bi zati** izango ditu

 Entzumena

 Irakurmena

ARIKETA	Puntuazioa, gutxienez	Puntuazioa, gehienez	Proposaturiko denbora
Entzumena	10	20 puntu	25 min inguru
Irakurmena	10	20	35 min inguru

Azterketa deialdia: **2013ko 1. deialdia**



Eusko Jaurlaritzako Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENTZUMENA

1. TESTUA

Ondoren, Euskadi Irratiko **Gertukoak** berri-saioa entzungo duzu. Guztira 5 berri entzungo dituzu. Berri bakoitza irudi batekin lotu behar duzu; beraz, hiru irudi sobera daude. Entzungaia **bi aldiz entzungo duzu**. Entzuten duzun bitartean, aukeratu erantzun zuzenak.

Erantzun zuzen bakoitzarekin puntu 1 lortuko da. Denera, 5 puntu.

A



B



C



D



E



F



G



H



Lotu berri bakoitza irudi batekin eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan.

1	2	3	4	5

ENTZUMENA

2. TESTUA

Eli Zunzunegi Euskal Telebista eta Euskadi Irratiko kazetaria da. Berri bat eman aurretik, bere lanari buruzko zenbait kontu entzungo dituzu. Entzungaia **bi aldiz** entzungo duzu eta testuinguruan duten esanahia kontuan harturik, zenbakiekin markatuta dauden hutsuneetarako **hitz egokia** aukeratu behar duzu. **Testua eta aukerako hitzak irakurri.** Idatzi bakoitzari dagokion letra beheko laukietan. Erantzun zuzen bakoitzarekin 0,5 puntu lortuko dira. Denera, 5 puntu.

Eli Zunzunegi



Lan egiteko orduan, badirudi itxurak ez duela garrantzi bera kazetari guztien artean. Irrati kazetariak, adibidez, ez dute eguneroko itxura hainbeste zaindu behar eta 1 gabe ere joan daitezke lanera. Kontu hau da 2 zaiona Eli Zunzunegiri, alegia, ondo apaindu eta makillatu behar izatea 3 ateratzeko.

Elik aitortzen du, batzuetan, ez dela makillatzen eta, antza denez, jendeak ez du nabaritzen, inork ez diolako ezer esaten. Bestalde, telebistaren aurrean ateraz gero, saiatzen da arropa polita eta dotorea ateratzen eta hori ez omen da beti ona, jendea, Eliren ustez, 4 geratzen delako eta ez kontatzen den berriarekin. Elik aitortzen du batzuetan ez duela 5 izaten eta makillatu gabe ateratzen dela.

Elik, gaurkoan, 6 gertatutako zerbait kontatzen digu. Antzezlan horren atzean dagoen 7 oso interesgarria iruditzen zaio berri hau. Antzerki taldekoek 8 nahi izan diote jendeari, antzezlan bukatutakoan, erabakitzeke zenbat ordaindu behar den sarreraren truke. 9 argia da: ikusleari 10 antzezlan gustatu zaion, zer ez zaion gustatu, zenbat ordaindu nahi duen...

Aukerako hitzak

- a. trajea jantzi
b. apaindu
c. ahaleginik egin
- a. gutxien gustatzen
b. maiz gertatzen
c. gehien kritikatzeko
- a. egunero
b. denbora laburrean
c. 20 egunetan
- a. detaileekin
b. kazetarien izenarekin
c. orrazkerarekin
- a. laguntzailerik
b. denborarik
c. aukerarik
- a. Madrilen
b. Euskadin
c. Katalunian
- a. aktoreengatik
b. zuzendariengatik
c. filosofiagatik
- a. aukera eman
b. gida bana eman
c. oharra egin
- a. Helburua
b. Irtenbidea
c. Tresna
- a. galdetu
b. sinestarazi
c. pentsarazi

IDATZI ERANTZUNAK

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

ENTZUMENA

3. TESTUA

Jarraian Maite Gonzalez Esnali *Ele-alea* irrati-saioan egindako elkarrizketaren pasarte bat entzungo duzu. Entzungaia **bi aldiz** entzungo duzu. Adibidean egiten den bezala, elkarrizketan zer esaten den kontuan hartuta, **erantzun egokia** aukeratu behar duzu. Idatzi galdera bakoitzari dagokion letra beheko laukietan. Erantzun zuzen bakoitzarekin puntu 1 lortuko da. Denera, 10puntu.

0. Nor da *Ele-alea* saioan gaurko gonbidatua?

- a) Egunero saio honetan parte hartzen duen emakumea.
- b) Esatariak dioen moduan, Maite Gonzalez, Esnal ezizenez.
- c) **Maite Gonzalez Esnal izeneko emakumea.**

1. Zer moduz dago Maite Gonzalez elkarrizketa hasten denean?

- a) Oso ondo, baina urduri, ez baitago ohituta irratian hitz egitera.
- b) Ederki, irratia bera ere oso gustuko baitu.
- c) Ondo eta gustura, ohikoa baita berarentzat irratian aritzea.

2. Zenbatgarren hizkuntza da euskara Maite Gonzalezentzat?

- a) Hirugarrena, bigarren hizkuntza frantsesa izan baitzen.
- b) Hirugarrena, nahiz eta familia donostiar euskaldun batean jaio.
- c) Bigarrena, eskolan gatzelera zelako erabiltzen zen hizkuntza.

3. Non ikasi zuen frantsesa Maitek?

- a) Eskolan, astean behin joaten baitzitzaion emakume frantses bat eskola ematera.
- b) Eskolako maistra batek irakatsi zizkion lehengo gauzak eskolaz kanpoko orduetan.
- c) Akademia batean, garai hartan Donostian frantsesa jakitea oso garrantzitsua baitzen.

4. Noiz hasi zen ikasten euskara Maite?

- a) Gogoratzen du 1967an Frantziako manifestazioen berriek eskolan harrapatu zutela.
- b) Gazte zela hasi zen, 24 urterekin, Frantziako 68 famatuaren urtean.
- c) Ez daki zehazki noiz hasi zen, dauzkan lehenengo erreferentziak 68koak badira ere.

5. Zer pentsatzen du Frantziako 68ko gertaerez galdetzen diotenean?

- a) Bera Donostian zegoenez, oso urrun zegoela Pariseko gertaeretan parte hartzeko.
- b) Parisen errebindikatzen zen hura urrun zegoela ikasten ari zen euskaratik.
- c) Iraultzaren atarian, deklinabidea eta aditzak ikasi besterik ezin zuela egin.

6. Zer nolako hizkuntza zen nagusi Maiteren familian?

- a) Gaztelera eta euskara erabiltzen ziren, Donostian gehienek biak hitz egiten baitzuten.
- b) Familia erdalduna zen, baina erabiltzen zuten gaztelarak euskal hitz asko zituen.
- c) Batzuetan euskara eta beste batzuetan gaztelera ematen zuen hizkera bat.

7. Zer nolako arazoak izan zituen Maitek euskara ikasten hasteko?

- a) Familia izan zen arazorik garrantzitsuena eta bakarra.
- b) Ez zegoela apenas borondate oneko jenderik euskara irakasteko.
- c) Non ikasi aurkitzea zaila zela, nahiz eta bazegoen prest zegoen jendea.

8. Zein izan zen erabiltzen zuten metodoa euskara ikasteko?

- a) Xabier izeneko lagun baten liburua zen erabiltzen zuten oinarrizko metodoa.
- b) Deklinabide eta aditz taulak bakarrik erabiltzen zituzten.
- c) Hainbat metodo erabiltzen zuten, adibidez, umeei zuzendutako liburu bat.

9. Non hasi zen ikasten Maite euskara?

- a) Hasi zenean, eliza batean, baina gero andereño baten etxean.
- b) Pare bat lekutan, besteak beste, irakasten zienaren etxean.
- c) Elizaren azpian zegoen lokal batean, geroago ikastola jarri zen lokal batean.

10. Zeri buruz hitz egin da entzun duzun elkarrizketaren azken pasarte honetan?

- a) Donostiar batek euskararekin izan duen esperientziari buruz, batez ere hasierako urrats haietan.
- b) Maite Gonzalez donostiarrak zergatik izan zituen hainbeste arazo euskara ikasteko.
- c) Garai hartako Donostian euskarak eta frantsesak zuten garrantziari buruz.

IDATZI ERANTZUNAK

0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
c										

IRAKURMENA

1. testua

Egitekoa

Irakur ezazu testua eta lotu kendutako esaldiak testuko hutsuneekin. Idatzi esaldien **letrak laukietan**, adibidean egiten den bezala.

Erantzun zuzen bakoitzarekin puntu 1 lortuko da. Denera, 6 puntu.

Erregearen bufoia

Bazen behin, urrutiko herrixka batean, 0, errege bat zaldi zahar-zahar baten jabea zena. Hainbat borrokatan ibiliak ziren elkarrekin, baina ordurako zaldi gaixoa erreumak jota zegoen eta 1. Erregeak asko maite zuen zaldi zaharra eta azken gozoa eskaini nahi zion: aurrerantzean, hil arte, zaldiak nahi zuen beste janari eta ohe biguna izango zuen.

Erregeak morroi bati eman zion zaldiaren ardura eta 2; baina agur esan baino lehen hurrengo esan zion:

- "3".

Zaldiak beste urte pare bat iraun zuen, eta azkenean hil egin zen, zaharraren zaharrez. Morroia beldur zegoen, erregeari berri txarra eman behar ziolako. Buru makur zegoen, zer egin ez zekiela. Une hartan gorteko bufoia pasatu zen ukuiluaren aurretik.



- "Aupa mutila!"

- "Nire lekuan egongo bazina, ez zenuke hain umore onik izango. Erregeak burua moztuko dio zaldiaren heriotza iragartzen dionari. Eta zaldia goizean hil da. Ni naiz arduraduna eta 4!"

- "Zaude lasai! Neuk emango diot berria erregeari."

Esan eta egin. Bufoiak zaldi bat hartu eta urruneko lurretarrantz abiatu zen. Hiru egun igaro ondoren, erregearen aurrean agertu zen.

- "Zer duzu bufoi, zertara etorri zara honaino?"

- "Berori ikustera etorri naiz, jauna?" Ba al daki berorrek azken berria?"

- "Ez. Esadazu zuk".

5. Bi urte zeramatzan bere gaztelutik urrun eta irrikan zegoen jakiteko gazteluan zer gertatzen zen.

- "Berorren zaldia etzanda dago eta ez dirudi burua jasotzeko batere asmorik duenik."

- "Zer ba? Ez du asmorik burua jasotzeko... Ohh! Hil egin da!"

- "Hara! Berorrek esan du. Eta....badaki zein den erregearen agindua.....".

Erregea pentsakor geratu zen eta...azkenean... 6, izan ere, huraxe zen bere buruarentzat erabakirik onena.

(<http://www.teatro-testuak.com/ipuinak>. Testu moldatua)

1. testua

Egitekoa

Lotu esaldi bakoitza dagokion hutsunearekin, adibidean bezala. Esaldi bi sobera daude.

- a) bere burua moztu beharrean bere hitza jatea erabaki zuen
- b) erregea pozik zegoen, zer entzungo zain zegoen
- c) gizona triste zegoen berri txarra esan ziotelako
- d) inork ezagutzen ez duen herrixka batean**
- e) herren ibiltzen zen
- f) nik hil dudanez, neuk ez diot esan nahi
- g) urruneko gerrara joan zen beste lur batzuk konkistatzera
- h) zaldia hil dela neuk esan beharko diodanez, hil egingo nau!
- i) zaldiaren heriotzaren berri ematera datorrenari burua moztuko diot

Idatzi dagokion letra ondoko laukietan.

Adibidea: 0 = d

Hutsuneak	0	1	2	3	4	5	6
Galderak	d						

IRAKURMENA

2. testua

Egitekoa

Irakurri testua eta, testuan esaten dena kontuan izanda, aukeratu erantzun zuzena. Erantzun zuzen bakoitzarekin 2 puntu lortuko dira. Denera, 10 puntu.

Gure irakasleak ez dira teknologikoak

Ezin da ukatu ordenagailuak eta teknologia berriak, oraingo gizarte honetan, oso beharrezkoak zaizkigula gazteoi: lagunekin txateatzeko edo sarean informazioa bilatzeko. Eskola mailan ere bai, eskolako gelakideekin lanak konpartitzeko, edota irakasleekin komunikazio azkarrago bat edukitzeko ezinbesteko tresna bihurtu delako.

Gainera, gazteok asko erabiltzen ditugu teknologia berriak gure aisialdian eta horrexegatik gara, hain zuzen ere, askotan oso kritikatuak. Nik esango nuke tramankulu berri hauek naturaltasun osoz onartu ditugula gure bizitzan, eta areago esango nuke: nire ustetan, gazte gehienek jakin dute etekina ateratzen teknologia berrietatik.

Arazoa da, eskolan edo institutuan berdina egiten saiatu arren, maiz ezinezko egiten zaigula teknologia mota hau erabiltzea, irakasle askok informatikari buruz gutxi dakitelako, edo halako teknologiaren kontrako jarrera argia dutelako. Horren ondorioz, hauetako askok debekatu egiten digute ordenagailua erabiltzea eta metodo tradizionalekin aritzera behartu. Jarrera honen adibidea izan liteke ordenagailu gelara joaten garen gutxietan, gelakide edo irakasleen ordenagailuan arazo txikiren bat egoten denean, ez dakitela konpontzen, eta normalean bertan behera utzi behar izaten dugu egiten ari garen guztia, "seguruago eta errazagoa den liburuarekin jarraitzeko.

Nire ustez, arazo honen atzean arrazoi batzuk daude: irakasleek ez dute beharrezkoa ikusten informatikari buruz ezer jakitea, haiek teknologia horiek gabe aritu zirelako, ikasi zutenean. Hori dela eta, teknologia hauetan abantailak ikusi beharrean guk denbora galtzeko jokoak baino ez dituzte ikusten. Eta hori gutxi ez bada ere, gehienek (behintzat nire institututan, ez dakit egoera orokorra den) ez omen dute informatikako klaseetara joan nahi, ikasteko benetako interesik ez dutelako.

Irakasleek izaten duten jarreraren ondorioz, nabaria da zentro askotan, irakasle eta informatikaren artean, desoreka handiak sortzen direla: ondo moldatzen diren irakasleak, txarto moldatzen direnak, txarto moldatu eta moldatu nahi ez dutenak, oso txarto moldatu, baina, gizajoak, hobeto moldatu ezin direnak... denetik aurkitu ahalko dugu.

Baina argi dagoena da, biharko egunean, irakasleak kontratatzean, informatikari buruz oinarritzko formazio bat eskatzea ezinbestekoa izango dela, gaur egun informatika eta teknologia (ez dut esango berria, guretzat dagoeneko ez baita berria) ezinbestekoak direlako. Ez badakite erabiltzen ikas dezatela.

<http://astronautak.ikasblog.net> (moldatua)

2. testua

Aukera ezazu erantzun egokia eta idatzi erantzuna beheko laukietan.

1. Teknologia berrien erabilera dela eta, zergatik dira gazteak kritikatuak?
 - a. Naturaltasun osoz erabiltzen dituztelako.
 - b. Eskolan ez, baina aisialdian erabiltzen dituztelako.
 - c. Denbora librean ere teknologia berriak erabiltzen dituztelako.
2. Zer arazori egin behar izaten diote aurre gazteek institutuetan?
 - a. Irakasle askok erabiltzen ez dakitenez, ez dagoela teknologia berririk.
 - b. Zentroaren jarrera kontrakoa denez, irakasleak ez direla erabiltzen ausartzen.
 - c. Irakaslearen jarrera ez dela beti erabileraren aldekoa.
3. Zer ondorio du institutuetan batzuetan dagoen kontrako jarrerak?
 - a. Behin baino gehiagotan bide tradizionaletara jotzen dutela irakasleek.
 - b. Ariketak ez dituztela inoiz ordenagailuan bukatzen.
 - c. Ordenagailuetan arazo teknikoak dituztenean, itzali egiten dituztela.
4. Zer arrazoi dago irakasle batzuen jarreraren atzean?
 - a. Irakasle batzuen ustez, ordenagailuek asignatura batzuetarako bakarrik balio dute.
 - b. Ez dutela, beren lan-ordutegitik kanpo, informatika ikastera joan nahi.
 - c. Haiek ikasi zuten ereduak kopiatu nahiago dutela.
5. Zein da idazleak azpimarratu nahi duen ideia nagusia testuan zehar?
 - a) Teknologia berriak oso garrantzitsuak direnez, menperatzea irakasle izateko baldintza bihurtu dela.
 - b) Irakasle askok beren jarrera aldatu beharko luketela, teknologia berriak oso garrantzitsuak direlako aisialdirako.
 - c) Irakaskuntzan hain garrantzitsuak diren teknologia berriek salto egin dutela eguneroko bizitzara.

IDATZI ERANTZUNAK

1.	2.	3.	4.	5.

IRAKURMENA

3. testua

Egitekoa

Irakurri testua eta, testuan esaten dena kontuan izanda, aukeratu erantzun zuzena. Erantzun zuzen bakoitzarekin 2 puntu lortuko dira. Denera, 4 puntu.

Arte berria



Arte modernoari buruz hitz egiten dugunean, beti gauza bera kontatzen dut. Ez dut sekula ahaztuko Guggenheim museora joan nintzen lehenengo aldia. Hor nengoen Puppy txakur loredu horren etxetzarraren giblean, erakusketaz gozatzen. Eta momentu hartan galdetu nion neure buruari hau ere

arte al da? Zer da arte moderno?

(euskerabili.blogspot.com . Testu moldatua)

Hona hemen galdera honi emandako bi erantzun.

1)

Andonik dio:

Beti gustatu zait marraztea, eta ez omen dut oso txarto egiten, nire karrera gainditzeko marrazki artistikoa menperatzea ezinbestekoa baitzen. Horretarako, gaitasuna izateaz gain, maiz praktikatu behar da, pianoa jotzen dutenei gertatzen zaien bezala, nik uste.

Baina kontu bat da teknikoki nola sortu artea eta beste bat artistek koadroetan islatzen dituzten ideiak, paranoiak eta beldurrak artea diren ala ez.

Artistak, artelan baten bidez, zerbait transmititzen badu, nire ustez, nahikoa da bere lana artetzat jotzeko, nahiz eta zer esan nahi duen ulertzea asko kostatu.

Zein da Andonik adierazi nahi duen ideia nagusia?

- A. Artearen inguruko ikasketak egin ditunez, bere ustez, artea sortzeko teknika izugarri garrantzitsua da. Teknika komunikazioa baino garrantzitsuagoa da.
- B. Artea teknika eta komunikazioaren arteko batuketa da. Batuketa horrek bultzatuko gaitu lan bat artetzat hartzera.
- C. Kostatu egingo zaigu lan bat ulertzea, baina arte lan horrek marrazkia menperatzen badu, lana artetzat jo behar da.

2)

Juan Angelek dio:

Inoiz ez zait gustatu artea. Adibide bat ematearren, Bilbokoa naiz, baina oraindik ez naiz Guggenheim museora joan. Hala ere, bidaia bat egiten dudanean, joan egiten naiz. Zergatik? Nire ustez, museoak bisitatzea turismoa egitea delako, eta nire kasuan, nire emazteari asko gustatzen zaiolako (berak artea ikasi zuen fakultatean).

Emaztea eta biok ez gaude ados arte modernoaren definitzean. Nik esaten diot, behin, museoa garbitzen zuen emakumea sartu zela gela batean eta lurrean zegoen zaborra garbitu zuen. Hurrengo egunean direnak ez direnak esan zizkieten arte lana baitzen hura. Horrela ez dago definitzerik zer den artea eta zer ez.

Zein da Juan Angelek adierazi nahi duen ideia nagusia?

- A. Oso artezalea da, eta horren adibidea da turismoa egiten duenean, beti joaten dela museoetara. Hala ere, ez daki ondo definitzen arte modernoaren.
- B. Ez da artezalea. Kanpoan dagoenean, ordea, artea ikusten du, artea turismoa egitearen osagai bat omen delako.
- C. Emaztearen eraginez, argi du museoetan dagoena artea dela, nahiz eta gertatu ahal den museoa garbitzen duenak arte lan bikain hori eskobatu eta zakarrontzira bota.

3. testua

Idatzi dagokion letra ondoko laukietan.

1.	2.